

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa Garapeneko Departamentuak nekazaritzako elikagaien sektoreko kooperatibak berregituratzen lagunduko du

Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Elkartearekin (UCAN) sinatu den hitzarmen bati esker 100.000 euroko diru-laguntza emango zaio kooperatiben bateratzea kudeatzen duen bulegoari

Jueves, 02 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Elkarteak (UCAN) hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmenari esker, azken erakunde horrek 100.000 euroko diru-laguntza jasoko du aurten nekazaritzako elikagaien sektoreko kooperatibak berregituratzeko prozesuak sustatzen dituen Dinamizazio Bulegorako.



Kooperatiben bateratzea dinamizatzeko hitzarmena. Sanzberro kontseilaria eta UCANeko presidentea, José María Martínez

Hitzarmena Jesús María Echeverría Azcona Landa Garapeneko zuzendari nagusiak eta José María Martínez Díaz UCANeko presidentek sinatu dute Begoña Sanzberro Iturriria Landa Garapeneko eta Ingurumeneko jarduneko kontseilaria haiekin batera dela.

[Nafarroako Koorperatiben foru legeak](#) Foru Erkidegoko nekazaritzako kooperatibak ordezkatzeko eta kooperatiba horien interesak defendatzeko eskumena ematen dio UCANi. Eskumen horien barruan, erakundeak bulego bat dauka nekazaritzako elikagaien kooperatiben berregituraketa sustatzeko, [2006ko Nafarroako Nekazaritzaren Plan Estrategikoan](#) ezarritakoari jarraiki. Plan horrek nekazaritza egituretarako helburuak zehazten ditu: Nekazaritzako egituren neurriak berriz ezartzen eta, bereziki, ustiategiak elkarrekin biltzen laguntzea, eta kooperatibagintzaren bilakaera lehiakorrari babesa ematea. Horretarako, bulegoak alternatibak aztertuko ditu, analisia eta hedapena burutu, instituzioen laguntzak lortu eta proposamenak eta planak prestatzen ditu.

Bulegoa mantentzeko, UCANek 145.756 euroko urteko aurrekontua kalkulatu du 2011rako. Horietatik 100.000 euro Nafarroako Gobernuak eman ahal izango ditu sinatu den hitzarmenaren bidez. Zenbatekoa bi epetan ordainduko da: ekainean, aurrekontuko partidetakoa ordura arteko gastuen egiaztagiria aurkeztu ondoren, eta, azaroan, ekainean

ordaindutakoaren eta hitzarmenean aurreikusitako kopuru osoaren arteko kendura, gastua justifikatu ondoren. Bulegoaren lanen jarraipena egingo du Landa Garapeneko Departamentuak eta Kooperatiben Elkartek osaturiko batzorde misto batek.